

KONPAINIA ESZENIKOAK

LABURPENA

Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko Gipuzkoako konpainia eszenikoei zuzendutako dirulaguntza (antzerkia eta dantza)

ESKATZAILEAK

- ✓ Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten persona fisiko nahiz juridiko-pribatuak izatea
- ✓ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren antzerki jardueren epigrafean alta emanda egotea, eta, pertsona juridikoen kasuan, antzerki eta/edo dantza jarduerak egitearekin bat datorren xede soziala izatea
- ✓ Azken 5 urtetan gutxienez 3 eszena ikuskizun profesional ekoitzi eta zabaldu izana
- ✓ Entitateak egunean egon beharko du Foru Ogasun eta Gizarte Segurantza erakundeekiko betebeharretan, eskaerak egiteko epea ixten den egunean

GEHIENEZ 21.000 €

AURKEZTU BEHARREKOA

- Eskaera orria beteta
- Dirulaguntzaren xede den proiektu, programa edo jardueraren azalpen-txostena
- Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua (horretarako aplikazioan atxikitzen den eredu bat)
- Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia (IFK, IFZ)
- Enpresen kasuan, Merkataritza Erregistroko inskripzioa

HONAKO ARLOETAKO JARDUERAK

Eskatzaileak ekoitzitako eszena ikuskizunen sustapen eta salmenta (antzerkia eta dantza)

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

Ikuskizun eszenikoak sustatzeko eta saltzeko kontratatutako langileen gastuak.

Komunikazio gastuak

BALDINTZAK

Deialdiko urtean aktibo egotea, aurtengo edo iazko obra batekin.

Jarduerak urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31aren artean egitea

KANPO GELDITZEN DIRA

a) Dirulaguntza izenduna xedatua dutenak

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste dirulaguntza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak

c) Ekoizpen eszenikoak modu ez profesionalean egiten dituzten entitateak. Honela, ez profesionaltzat emango dira antzezlanen interpreteekin (aktore, dantzari) kontratu harremanik lotzen ez dutenak

DIRULAGUNTZA KALKULATZEKO IRIZPIDEAK

Diruz lagundu daiteke programa garatzeko aurreikusitako gastuen %50

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren %50 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

Onuraduna sozietate mugatu edo anonimo motako enpresa edo kooperatiba egitura bat bada, a.1 eta a.2 ataletan jasotako kontzeptuen baturaren emaitza izango da dirulaguntza:

a.1. langileak kontratazeko kostuaren %50, gehienez 15.000 €-ko dirulaguntza

a.2. Komunikazio gastuen eta sustapenera bideratutako materialak egiteko kostuaren %50; gehienez ere 6.000 €-ko dirulaguntza

Onuraduna beste erakunde juridiko bat (irabazi asmorik gabeko erakundea) edo pertsona fisikoa bada, konpainia berri edo sortu berri bat, arte eszenikoetan partzialki aritzen den pertsona edo erakunde bat bada eta ez bada bere jarduera osoaren %50era iristen, dirulaguntza honako atal hauetan (b.1 eta b.2) bildutako kontzeptuen baturaren emaitza izango da:

b.1 Ikuskizunak, osorik edo zati batean, sustatzen eta saltzen aritzen diren langileak kontratazeko kostuaren %50, gehienez 7.500 €-ko dirulaguntza

b.2 Komunikazio gastuen eta sustapenera bideratutako materialak egiteko kostuaren %50; gehienez ere 3.000 €-ko dirulaguntza.

EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO** Azken eguna 2023.06.30
- **ZURIKETA AURKEZTEKO**
Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da
- **ORDAINKETA**
Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduera amaitu ostean

TRAMITAZIOA NOLA

- Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>). Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)
- Pasahitz propioak ez dituzten entitateen kasuan, honen izenean jarduteko, ezinbestekoa da ordezkari bat behar bezala inskribatuta edukitzea dagokion ordezkari eroldan. Informazioa: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/ordezkaritza>

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:

- Oinarri orokorrak: [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 78 zk. 2021-04-29](#)
- Berariazko oinarriak eta deialdia: [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 101 zk., 2023-05-26](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu.

T 943 11 33 43 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / www.kbulegoa.eus

Santa Teresa komentua

Elbira Zipitria bidea 1
20003 Donostia

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00

K
B
U
L
E
G
O
A



*Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.